



...elkarrizketa:

ENDIKA MONTIEL
 > "Aurreko guztiak merezi izan zuela pentsatu nuen Olympia Amateur kulturismo txapelketa irabazi nuenean" 12.or


Kultura

25 ekitaldi baino gehiago egingo dira Urduñako Musika Astean 11. or.



Amurrio

Amurrioko kaleetako plaka frankistak kenduko dituzte 3. or.



Iritziak:

JULEN ARZUAGA 2. or.
IZASKUN GARCIA 6. or.
 ENEKO GASTAKA 7. or.
INMA ROIZ 10.or
 EDORTA MORENO 11. or
LUCIA MENOYO 16. or



aiaraldeia



Aiaraldeko hamabostekaria
 2015 /// Azaroak 19 /// OSTEGUNA
 41. zenbakia /// Doan ///
www.aiaraldeia.eus

Azaroak 25 Indarkeria matxistaren aurrean kaleak hartzeko deia



Argazkia: Adolfo Lujan

Ehunka herritar "urduñar berrien" bizipenei so, lau egunez



"Urduñar berriei" buruzko jardunaldiak antolatu zituen ADRATAN etnografi elkarteak azaroaren 5etik 9ra. Migrazioen inguruko hainbat hitzaldi eta mahai-inguru egon ziren. Estatu Espainiarreko beste zonalde batzuetatik edota atzerritik Urduñara bizitzera joandako hainbat herritarrek euren bizipen eta inpresioak kontatu zituzten, jendez goraino betetako Alondegian. Jardunaldi arrakastatsuak izan ziren, ehun pertsona baino gehiago gerturatu baitziren lau egunetan.

Igandean amaitu ziren jardunaldiak, iaz zendutako Jose Ignacio Ruiz de Olaguenaga soziologo urduñarrari eginiko omenaldiarekin. 6-7 or.

IRAKURKETA ERRAZEKO KLUBA: Bi talde osatu ditu APDEMAk eskualdean irakurtzeko zailtasunak dituztenen irakurketa eskubideak bermatzeko 10 or.

ENPRESA OPARIAK

KAMISETAK, USB-AK, TERMOAK...
 BEHAR DUZUNA ESKATU
 ETA LORTUKO DUGU///

GUREKIN
 ERE
 EUSKARAZI!



Graf!k

PRODUKTU PROMOZIONALA///
 JANTZI ZERBITZUAK///
 MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
 94 672 65 43
prof@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

_iritzia



Julen
Arzuaga
LEGEBILTZARKIDEA

_Leihotik

Memoriaren zati bat

Azaroaren 10ean Memoriaren Eguna izan zen. Lakuako gobernua kaleratutako txostenean Aiaraldean ETak 70 eta 80. hamarkadetan eragindako hildakoak agertzen dira: Fernando Amor (Aiara), Joaquín Becerra (Amurrio), Félix eta Estanislao Galíndez anaiak (Amurrio), José Luis Vicente (Laudio) Ciriaco Sanz (Laudio). Zalantzarik ez dago, ETA erakundeak berak onartu zuelako bere autorretza.

Dokumentuan ETarena ez den biktima bakarra agertzen da, baina ikerketa gehiago behar omen du. Vicente Velasco 1976ko irailaren 27ko goizaldeko ordu biak aldera ateratzen zen Laudioko Marbella tabernatik. Seiak inguruan bizi zen pentsioko eskaileratan topatu zuten odolotan. Egundak geroago hil zen. Berrien agentzia baten arabera Aceros de Llodion greba deialdiarekin bat ez egiteagatik eraso egin zion langileen pikete batek. Enpresako langileek gezurtatu zuten bertsioa, eraso greba eguneko bezperan izan zela azpimarratuz. Beste iturri batzuen arabera polizierekin lotutako "inkontrolatuek" erail omen zuten.

Argitu gabeko kasuari beste hutsune batzuk gehitu behar zaizkio. Fontso Isasi eta Pili Arzuaga sakabanaketa politikak hildako presoan senideez ez da oroitzen dokumentua. Txostenak ez ditu jasotzen, ezta ere, gatazkaren testuinguruan bizitza galdu zuten Jon Pagazaurtundua orozkoarra; Gotzon Landeta Amurrioko iheslaria (erbestean garatutako gaixotasunaren ondorioz hila); torturatuen kasuak, Bixente Malaxetxebarriarena kasu... Memoria zati bat agerian. Beste bat ezkutuka.



Jose
Fabrikako langilea

Niri ondo iruditzen zait Laudioko jaien datak aldatzearen ideia. Niri ez zait orain dagoen eredu gustatzen, jaietako bi zatien arteko tartea handiegia dela iruditzen zaidalako. Hori bai, Laudioko festen datak aldatzea oso zaila dela uste dut, baina hala ere nik aldatuko nituzke.



Izaskun
Sukaldaria

Laudioko jaiak beti izan dira horrela. Ez dut uste bi zatien artean aste bateko tartea egoteak arazo asko dakarrenik. Txupinazoa beti izan da 15ean, Gure Amaren egunean. San Roke eta Sanrokez gure herriko patrioiak dira, eta Odoloste eta Kofradia Egunak beti dira hileko azken asteburuan. Ez dut uste datak aldatu beharko liratekeenik.




_GALDERA

Laudioko jaien datak aldatuko zenituzke?

BIDEA WEB-GUNEAN

Proposatu zuk ere galdera egunkaria@aiaraldea.eus helbidera idatzita.




Marta
Pentsionista

Nik pertsonalki abuztuaren 15etik 22ra bitartean egingo nituzke Laudioko jaiak. Aste osobateko festak izango lirateke, eta listo. Bi txandetan zatitzea ergelkeria bat iruditzen zait. Egundak dituzten jaiak dira, eta gero azkenean egitarau aldetik ia ez dago ezer.



Aitor
Langabetua

Oraindik ez dut nire iritzia oso argi. Orain dauden datek abantaila zein desabantailak dituzte. Beti izan dira abuztuaren data horietan, eta alde batetik gustatuko litzaidake hori mantentzea. Baina merkataritzaren ikuspuntutik datak aldatzeak onura ekonomikoak ekartzen baditu agian moldatzea planteatu beharko litzateke.



Irene
Ikaslea

Ez diot nire buruari datak aldatzearen ideia planteatu. Orain dauden bezala ondo daudela deritzot. Eskertzen da jaien bi zatien artean atsedenaldi bat izatea, baina ez dut inoiz planteatu. Jaiak bi zatituta badira ez dakit gero Bilboko jaien une berean izateak jendeak Bilbora alde egitea ekarriko ote lukeen.

_gutunak

Autodefentsa feminista

Eider Gartzia (Otsemeak, Amurrio)

Melissa, Annie, Maria, Leire eta Almudena, 5 eraiketa jada urte honetan. Erasoak zenbatezinak. Emakumeok jasaten ditugun bazterketa egoerak areagotuz doaz: Lan prekarioak eta soldata ezberdintasunak, estereotipoak, gure gorputzaren jabe izatea ukatu eta objektu bilakatu, kontrola, debekuak... Bikoiztu egiten dira gainera, emakume eta gazteak garenean. Emakumeoi rol pasibo, sentibera eta ahula esleitzen digu sistemak eta indarkeria matxista kontrolpean eta menpeko mantentzeko erabiltzen du, erasoan aurrean biktimizazio ikuspegi batetik politika paternalistak soilik martxan jarritz.

Esan bezala, zenbatezinak dira erasoak, baina neska gazteok argi daukagu: Erantzun egingo diegu! Erasoan aurrean autodefentsa feminista izan behar da gure tresna. AUTODEFENSA ez dugulako salbatzailerik behar eta FEMINISTA balio justuagoetan oinarrituriko harremanak lantzen dituelako. Emakumeengandik eta emakumeentzako egina izango da eta ezarritako ordena sozial patriarkalari aurre egitera goaz!! Horretarako kontutan izan behar dugu sistema kapitalista patriarkala birproduzitu egiten dela geure jarreretan, eta gure inguru hurbiletik hasi behar dugu egoerari buelta ematen.

Garaziren hizkuntza berria

Jon Urkijo

Ikastolan euskarari gorazarre egiten genion Aitorren hizkuntz zaharra abestia "a cappella" denok batera abestuz, bikaina zen.

Harro oihukatzen genituen "munduaren aurrean gizonki azaldu" eta "biraorikan ez duen hizkuntza garbia" bezalako perlak, euskera sakratua baitzen. Munduaren aurrean emakumeak gizonki azaldu? Berriki agur jaunak abestia moldatu dute, agur jaunak eta andreak jarrita; ez da hasiera txarra.

Bestalde, euskarak biraorik ez duela esatea irigarria da guztiz; euskara zer da ba, jainkoen hizkuntza?

Orain txosnetan urde sasikumeak boterean daudenak (Etsaiak), behinola subnormalak etorri ziren (Berri Txarrak), nazka ematen dute (Su ta Gar), karkazo urte bat izan zan (Jousilouli), askoz hobe nago zu gabe (Ze esatek)... bezalako abestiak entzuten ditugu. Txineraz?

Euskera ahalik eta gehien garatzeko inolako konplexurik gabe erabili behar dugu, egunerokotasunean, komunikabideetan, administrazioan zein argitalpen teknikoak idaztean, beste edozein hizkuntza bizi bezala.

Euskera zerutik kalera jaitsi behar dugu, bere biraorik eta guzti. Garaziren hizkuntza berria erabil dezagun!

Argitaratzailea:
Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada:
10.000 ale.
Maiztasuna:
Hamabostekaria
Lege gordailua:
BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:
publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Web-gunea:
www.aiaraldea.eus
Helbidea:
Nerbioi Kalea 1, 3. esk.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak:
Tel: 94 656 85 54/688 62 59 00

ERREDAKZIO OHARRA:
Aiaraldea Egunkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan, gutunetan zein egindako elkarriketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

Egunkari hau laguntzen dute:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

CuadraBus
Zankueta Poligonoa z/g - Amurrio, Araba. Tlfnoa: 902 210 215
info@cuadrabus.com

Graf!k
Grafik Koop.
Telleria 2 01400 Laudio (Araba)
94 672 65 43
info@grafiksarea.com

JEZ
JEZ Sistemas Ferroviarios
Arantzaz, z/g - LAUDIO (Araba)
Tel.: 946 721 200 // info@jez.es

ausolan
Uribarri etorbidea 35
20500 Arrasate
ausolan@ausolan.com

herri herri

Amurrio



Herritarrek frontoi kalean moldaketak proposatu dituzte. /aiaraldea.eus

Udalak frontoi kaleko lanen iradokizunei erantzun die

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Uztailean aurkeztu zuen Amurrioko Udalak frontoi kalea urbanizatzeko ekimena. Urrian iradokizunak aurkezteko epea zabaldu zuen eta aintzat hartu beharreko proposamen batzuk heldu direla jakinarazi dute.

Batetik, frontoi kalearen amaieran dagoen zebraidea altxatzea proposatu dute. Horri esker, errazagoa izango litzateke oinezkoak bertatik igarotzea, batez ere, mugikortasun urriko pertsonentzat edo ume karroekin zein erosketarako orgekin doazenentzat.

Bestetik, plaza azpian zeuden komun publikoak berriro herritarren erabilerrako uztea eskatu dute. Dena den, Udaleko zerbi-

tzu teknikoek adierazi dutenez al-tuera eta irisgarritasunaren inguru-ko araudia dela eta, teknikoki ez da bideragarria komunak berreskuratzea.

Espaloietan aldaketak

Frontoi kaleko espaloiak igotzea ere proposatu da, kale horretako saltoki eta lokaletara heltzea erosoagoa eta errazagoa izan dadin. Udalak "erosotasuna" lortzeko ahalegina egingo duela baieztatu du, baina proposamen hori gauzatu ahal izateko teknikoki zailtasun handiak daude. Izan ere, saltokihoriek maila oso ezberdinetan daude.

Datozen hilabeteetan bigarren fasea abiatuko dute.



Herritar ugari eskatu dute plakak kentzeko baimena. /aiaraldea.eus

Udalak plaka frankistak kentzeri ekin dio

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Amurrioko etxebizitza ugariak dituzte sinbologia frankistako plakak. Aste honetan, udalak plaka horiek kentzeari ekin dio.

Josune Irabien Amurrioko alkateak adierazi du komunitate askok bidali dietela plaka horiek kentzeko eskaera. Alkateak gogorarazi

du, oraindik, plakak kendu nahi dituzten horiek, horretarako beharrezkoa den dokumentazioa bidali dezaketela.

Amurrio da ikur frankistak kenduko dituen eskualdeko hirugarren herria, aurretik Urduñak eta Laudiok hasi bazuten lana.

Okondo

Auzolanean konpondu nahi dute Arenaldeko parkea

ERREDAKZIOA | Aitor Aspuru
Okondoko Udalak diru-laguntza eskaera egin dio Arabako Foru Aldundiari Arenalde parkeko kulunkak konpontzeko. 30.000 euro gehienez eskatu dezakete horretarako. Lanak auzolan bitartez gauzatuko ditu Guraso Elkartek. Asmoa kulunka berriak jartzea da, orain daudenak baino gehiago. Lurzorua ere hobetu nahi dute.

Aiara

WhatsApp bidez informazioa eskaintzen hasi da Udala

ERREDAKZIOA | Miren Ayesa Aranoa

Aiarako Udalak WhatsApp aplikazio bidezko udal informazioa zerbitzua abiatu du. Aplikazio berria sistema erraz batean oinarritzen da. Udal informazioa jaso nahi izanez gero, mugikorrean "Ayala Info" kontaktua sortu eta 615 788 146 telefonoa sartu beharko da. Ondoren, whatsapp bat bidali beharko da "Alta" hitza idatziz. Zerbitzua eteteko "Baja" idaztearekin askizango da.



Ez da medikua, baina gure osasuna zaintzen du.

Ez da ingeniaria, baina gure paisaia zaintzen du.

Ez da irakaslea, baina gure kultura zaintzen du.

Hori da geurea

Horrelakoak dira gure ekoizleak

Profesional handiak, guretzat elikagai osasungarri, samur eta naturalak ekoizteaz gain, gure osasuna, paisaia eta kultura zaintzen dutenak.

Horregatik, elikagai hauek kontsumitzea ona da denontzat.

Goi mailako kalitatea eta jatorri deitura duten elikagaiak



hazi



_herriz herri

Urduña

Tokiko ekoizleak ezagutarazteko "KM 0" dinamika abiatu dute



ERREDAKZIOA I

Urduñako Turismo bulegoak, Sustapen Ekonomikoaren arloarekin batera dinamika turistiko berria sortu du Urduñako ekoizleak ezagutzera emateko.

Horretarako, bertako produktu eta gastronomia ardatz dituen dastatze saioak egingo dituzte opor egunetan. Lehendabiziko saioa urriko zuzian egingo zuten. Hurrengo abenduaren 5ean, 6an eta 8an egingo dute, 12:45ean. Partaide kopurua mugatua denez aurrez eman beharko da izena; turismo bulegoan (945 384 384) edo emailaz (turismo@urduna.com).

Jostailuak biltzeko kanpaina aurkeztu du Urduñako Biltegiak

ERREDAKZIOA I

Bihurtze elkarteak eta Urduña-ko udalak gabonetan jostailuak banatu ahal izateko kanpaina abiatu dute. Jostailuak entregatzeko bi astegunetan egongo dira anbulategiaren behealdean duten almazenean. Batetik, astearteetan (10:00-12:00) eta bestetik ostegunetan (18:00-20:00). Kanpainak hilabete bateko iraupena izango du, hots, abenduaren 17 arte egongo da parte hartzeko aukera.

Artziniega



Bleibet abesbatzak elkartasun kontzertua emango du. /aiaraldea.eus

Hainbat ekimen solidario antolatu dituzte

ERREDAKZIOA I Aitor Aspuru Saez

Azaroaren 28an Fair Saturday programaren barruan Bleibet Abesbatzak elkartasun kontzertua eskainiko du Agustindarren komentuan. Arthritis Erreumatoida daukaten Bizkaiko Gaixoen Elkartearen aldeko emanaldia izango da. Artziniegako herritar bat elkarte kidea da eta.

Egun berean, Hiriska elkarteak elkartasun azoka antolatuko du. Lortzen duten dirua paralisia sufritzen duen artziniegarrak bati garrantzia erosteko erabiliko dute. Maki-

nak 5.000 euro inguru balio du.

Abendua ere, elkartasunez blai

Bestalde, abenduaren 19an Okondoko Itzalde abesbatzak kontzertua eskainiko du Filipinetan kaletan bizi diren umeen alde. Egun horretan Urizahar taldeak jostailu bilketa abiatuko du bere egutzan. Abenduaren 26an bukatuko dute egitasmoa.

Hori guztia ez ezik Arabako Elikagaien Bankurako elikagaiak bilduko dira herrian.

Igerilekuetako aldagelak konponduko dituzte

ERREDAKZIOA I

Igerilekuetako aldagelak egokitzeko lanak aurkeztea onartu du Artziniegako Tokiko Gobernu Batzarrak Obra Txikiko Foru Planean.

Egun, aldagela horiek ez dute betetzen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak ezarritako araudia eta ondorioz berritzeko beharra dute. Udalak prestatutako aurrekontuaren arabera, lanek 35.000 euro balio dute.



Aiaraldea


Pablo Gorostiaga aurkeztu du EH Bilduk Kongresurako

ERREDAKZIOA I

EH Bilduk Madril en erregistratu ditu dagoeneko Senatu eta Kongresurako hauteskunde zerrendak. Koalizioak aurkeztuko dituen hautagaien artean 3 aiaraldar daude.

Kongresurako zerrenda arabarrean Pablo Gorostiaga eta Yolanda Cuadra egongo dira, 3. eta 4. postuan, hurrenez hurren. Pablo Gorostiaga Laudioko alkatea eta eusko legebiltzarkidea izan da. Kartzelatik atera da aurten 18/98 sumarioaren harira 8 urteko espetxe zigorra bete ostean.

Yolanda Cuadra amurriarra klinika laguntzailea da eta pertsona nagusiekin egiten du lan. Erabakitze eskubidearen alde jardun du hainbat taldetan.



Senatuko zerrenda

Izar Mendiguren audioarra 3. izango da Senatuko zerrendan. Kazetaria da eta herri mugimenduko kide gisa aurkeztu du koalizioak.

Zollo



ZOLLOKO SAN MARTIN JAIK: Urtero lege San Martin Jaiak ospatzen ari dira Zollon. Ekitaldi gehienak pasa den astean egin zituzten -herri kirolak, kontzertuak, kantaldiak...- eta larunbatean bazkaria gauzatuko dute 14:00etan. Roberto eta Idoia trikitilariak alaituko dute giroa.

www.durangokoazoka.eus

50. DIA!

abenduaren 4tik 8ra

_herriz herri

Aiaraldea

Udaltalde 21-en bitartez kudeatuko dituzte hondakinak Bizkaiko herriek



ERREDAKZIOA I

Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo, Orozko eta Urduñako udalak Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalen esku utzi dute hondakinen kudeaketa. Erabaki horren bitartez zerbitzuen eraginkortasuna areagotu nahi dute.

Udaltalde 21 Nerbioi-Ibaizabalek eskualdeko ikuspegia baliatuz kudeatuko dituzte hondakin zerbitzuak; lehenik eta behin, gainerakoaren, paper-kartoiaren, hondakin organikoaren eta tamaina handikoen frakzioak bildu eta tratamendu instalazioetara garraiatzeko zerbitzua kontratatzea; bigarrena, hondakin horiek gordetzeko eta tratatzeko izapideez arduratzea; hirugarrena, SCRAP'S deritzen kasuan (beira eta ontzi arinak), bitartekaritza bateratua egitea.

Erabaki horrekin 2010ean abiatutako prozesua burutu dute, etxeko landare-olio erabiliaren kudeaketa batuta.

Laudio

842.224 euro Musika Etxeko zaharberritze lanak gauzatzeko



ERREDAKZIOA I

Diputatuen Kontseiluak Laudioko Musika Etxea goitik behera zaharberritzeko obrak esleitu zituen asteartean, 842.224 euro bideratu ditu erakundeak 750 metro karratuko eraikinaren konpontzeko. Urte amaieran hasiko dira lanak eta 7 hilabetetan bukatu beharko dituzte.

Zurezko jatorrizko eskailera kendu eta haren ordez beste eskailera bat jarriko dute eta irisgarritasuna bermatuko duen igogailu bat ere.

Horrez gain, Lamuza kaletik Musika Etxera sartzeko atea itxi eta ate horretatik metro batzuk eskuinetara, Lamuza kalean bertan, beste ate bat irekiko dute.

Dorreko antzoki zaharreko sarrera atea ere kenduko dute. Gela berezi horretan agertokiko zurezko pilastrak mantentzeko asmoa daukate, eta hitzaldi eta erakusketarako aretoa egingo dute. Haltetik zuzen-zuzenean sartu ahal izango da bertara.

Orozko

Arbaitza, Elpaltze eta Zaloako bideetan konpontze lanak egin dituzte

ERREDAKZIOA I

Orozko 3 auzotan bideak konpontzeari ekin dio udalak; Arbaitzan, Elpaltzen eta Zaloan, hain zuzen. Neguan lur-jauzi batek Arbaitzako bidea hondatu zuen. Hori dela eta Bizkaiko Foru Aldundiak obrak ordaintzeko %90eko diru-laguntza eman dio udalari. 50.000 euroko kostua izan dute lanek.

Elpaltzeko bidean bi lan egin dituzte. Alde batetik, udan aldapa konpondu zuten, maldatsuegi bai-

tzen. 150.000 euro inbertitu zuen udalak horretarako. Pasa den astean, ordea, beste 33.000 euro gastatu zituzten etxeetara doan bidea berritzeko.

Zalao

Aste honetan Zaloako errepide erdia konpondu dute a 37.000 euroko aurrekontua erabiliz. Beste erdia hurrengo ekintza batean egingo dute.



Hezkuntzaren pribatizazioaren aurkako Europako Ikasle Foroa, Aiaraldean



Leioako Campusean aurkeztu dute foroa. / aiartaldea.eus

ERREDAKZIOA I Samuel Pasandin Sanchez

Europar ikasle foroa aurkeztu du espainiar estatuko nazio zapalduetako ikasle antolakundeek 'Para Los Pueblos' dinamika 'Against capitalist education' -Hezkuntza kapitalistaren kontra- lelopean. Europa osoko ikasle iraultzaile eta antikapitalisten ahotsak elkartu nahi dituzte, Bolonia Plana-

ren eta egun egiten ari diren erformen aurka antolatuzko.

Otsailaren 26, 27 eta 28an Euskal Herrian eta zehazki Aiaraldean egingo dute nazioarteko ikasle foroa "Forum To Fight" izenpean. Grezia edo Errumaniako ordezkariak ekarriko ditu hitzorduak eskualdera, besteak beste.

MUNDUAREN AZKEN MUTURREKO EROSLEA

EROSKI online zurekin

EROSKI online Supermerkatuan lurraldearen %100era iristen gara eta Euskadiko eta Nafarroako landatar eremu guztietan ematen dugu zerbitzua. Zauden lekuan zaudela ere zurekin egoteko, zure munduaren, gure lurraldearen azken muturrean egonda ere.

eroski.es

Lurraldearen
%100-
era
iristen gara

_jendartea



Izaskun
Garcia
LAB

_Argia

Prekarietatea indarkeria da!

Goizero lez etxetik atera eta lanera nindoala Maitekin egin dut topo. A ze asteburua! Indarkeria matxistak 5 emakume erail ditu asteburu bakar batean! Zer gertatzen da jendarte honekin? Erantzuteko aukerarik ere ez dit eman, beti bezala presaka dabil, lanera sartu aurretik gurasoen etxetik pasa behar da, adinean aurrera doaz eta baten batek eskaini beharko die arreta.

Kalean behera Mila ikusi dut egunero garbitzen duen portalean erratza astintzen jo ta fuego. Zelan Mila? Nekatuta, jubilatze gogoekin, baina bizitza osoan lanaldi partzialean aritu naizenez, adina bai baina prestazioa jasotzeko baldintza minimoak ez ditudala betetzen esaten didate, hau marka gero! Eiderri mezua bidali diot asteburuan plana egiteko, baina lan egin behar duela erantzun dit. Kontratu lau orduko eta lanaldia astean zehar egiteko bada ere, tabernetan badakizu azkenean 8-9 ordu sartu behar, asteburuak barne. Lanera helduta, ezin ditut Maite, Mila, Eider eta beraiek bezalako milaka emakume burutik kendu. Egunero zaintza lanez arduratu behar diren emakumeak, inolako babesik gabe lan merkatu arautik kanpo lanean dihardutenak, lan merkatu arautuan diskriminazioa eta prekarietatea pairatzera kondenatuak daudenak... Emakumeok pairatzen dugun egoera ez da normala, ez da kasualitatea. Sistema patriarkalak ondo diseinatutako estrategiaren ondorio zuzena da. Sistemak prekarietatera kondenatu gaitu, burujabetza ekonomikorako eskubidea lapurtu, menpeko izaki nahi gaituelako. Emakumeok pairatzen dugun prekarietatea indarkeria da!

ADRATAN ELKARTEAREN JARDUNALDIAK

Urduñar berrien bizipenak Alondegia koloreztatu dute, lau egunez

“Urduñar berriak” izan dira ADRATAN etnografia elkarteak Urduñan antolatutako jardunaldien protagonistak. Lau eguneko ekimena izan zen, azaroaren 5etik 9ra bitartekoa. Alondegian egin zituzten hitzaldi eta mahai-inguru guztiak, eta aretoa txiki geratu zen, ehundik gora herritar bertaratu baitziren egunero.



Jatorri ezberdinetako urduñarrek hartu zuten parte mahai-inguruetan. / Antonio Muñoz eta aiaraaldea.eus

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

“Esposatze eder hau antolatu du ADRATAN elkarteak, urduñar guztiok bisita dezagun”. Hala zioen hilaren hasieran Urduñan antolatutako jardunaldiei hasiera emateko Jose Luis Bigurik abestutako jotak. Urduñar guzti-guztiak ez ziren egon, baina bai asko. Alondegiko aretoa txiki geratu zen jardunaldiak iraun zituen lau egunetan, ehundik gora herritar bertaratu baitziren. Alde horretatik “zorte handia” izan zuten ADRATANekoek, elkarteko kidea den Marisa Bergonen hitzetan. Jardunaldi monografikoak dira udazken partean ADRATANek antolatzen dituenak. Iaz nekazal eremuko emakumeen esperientziak bildu zituzten. Aurten, berriz, beste herritar batzuen bizipenak jarri nahi izan dituzte mahai-gainean: Urduñan jaio ez direnenak, urduñar berrienak, hain zuzen. Lau egun baliatu zituzten horretarako, azaroaren 5etik 9ra. Jose Mari Garaio soziologoa izan zen hitza hartzen lehena. Migrazioen nondik norakoan inguruan mintzatu zen. Adierazi zuen gaur egun migra-

zioak “masa-fenomeno unibertsal” bilakatu direla, eta ugariak eta antizak direla bisitokiz aldatzeko norbanakoek izan ditzaketan arrazoiak. Zentzu horretan, arrazoiak beti sozio-ekonomikoak direnaren estereotipoarekin amaitu egin behar dela aldarrikatu zuen aiaraaldearrak.

Historiaren funtsezko atal

Migrazioek Urduñaren historian izan duten garrantzia nabarmendu zuen Garaio bere hitzaldiaren bigarren zatian. Soziologoak erantsi zuen “funtsezko faktore” izan direla migrazioak hiriaren bilakaera historikoan. “Erdi Aroan jada ematen ziren migrazioak. Harresidun hiri-aitzak inguruko landa-guneen erferentzia izatea zekarren. Hortaz gain, aduana funtzioa ere betetzen zuen Urduñak, zuen kokapena medio”. Hori dela eta hasi ziren gerturatu beste herrialdeetako pertsonak, merkataritza frantsesak eta judutarrak tartean. Garaioaren esanetan. Baina migrazioak ez ziren norabide bakarrekoak izan. Egun ziren ur-

duñatik alde egin zutenak ere, “erresumen hiriburura funtzionario moduan lan egitera edo Ameriketako kolonietara bizitzera gehienak”. Juan Ortiz de Zarate jarri zuen Garaio adibide moduan, Ameriketara bizitzera joan eta bertako printzesa inka batekin ezkondu zen urduñarra.

1950tik aurrera industria ertaina garatzen hasi zen hirian. Horrek Estatu Espainiarreko hainbat zonaldeko langileak erakarri zituen. “1970an Urduñan zeuden biztanleen % 40 baino ez zen hirian jaioa, gainontze-koak beste leku batzuetatik bertaratutakoak ziren, Gaztela-Leoi, Galizia edota Extremaduratik”.

Migrazioen onurak

Nuria Telleriak, bere aldetik, baieztapen batekin hasi zuen bere saioa: migrazioak “onura ugari fenomenoak” direla. Zergatik? “Populazioa gazteagoa izatea lortzen dutelako, langile kualifikatuak ekaritzen dituztelako, sektore ekonomikoak dinamizatzen dituztelako, etxebizitza eskaria handiagotzen dutelako eta zerbitzu publikoetan moldaketa eragiten dutelako”. Hala ere, aitortu zuen ulertzen dituela migrazioaren inguruan dauden beldurrak, baina beldur horiek “mundua bezain zaharrak” direla azpimarratu zuen. Zentzu horretan, Telleriak gaineratu zuen berrikusi egin behar dela etorkinaren figura “arazo sozialaren eragile, biktima edo gaizkile” gisa. “Kontzeptu horiek ordezkatu egin behar dira, aldaketa sozialaren eragile bezala ikusteko”.

Urduñar berrien bizipenak

Hitzaldi historiko eta teorikoen bizipenei eman zieten paso, jardunaldien bigarren egunean. Hainbat jatorritako urduñarrek bildu ziren mahaiaren bueltan, Estatu Espainiarreko beste zonalde batzuetatik bertaratutakoak. Hirira iristerakoan izan zuten harrera eta “urduñar zahar” bilakatu arte bizitakoak azaleratu zituzten. Parte hartze handia egon zen publikoaren aldetik, mahai-ingurura gerturatutakoetako asko ere antzeko egoera bizi izandakoak zirelako.

Hirugarren egunean urduñarren bizipenak izan zituzten baita hizpide: atzeritik iritsitakoak. 10 pertsona jarri ziren guztira mahaiaren bueltan: hiru latinoamerikar, bi senegaldar, hiru saharar eta marokar eta eskoziar bana. Bizipen ugari eta antzak mahai gaineratu ziren, oso gogorrek kasu batzuetan. Gehienak

Migrazioen arrazoi historiko eta sozialak izan zituzten hizpide lehen egunean. Hurrengo bietan, berriz estatu barneko immigranteen eta atzeritik gerturatutako bizipenak mahai-gaineratu zituzten

arrazoi sozio-ekonomiko edo familiarak medio iritsi ziren Estatu Espainiarrera. Urduñara bizitzera joateko arrazoiak, baina, anitzak ziren: batzuk pisua bertan topatu zutelako geratu ziren. Beste batzuk, berriz, Urduña gogoko zutelako.

Gehienek aipatu zuten hirian izan duten harrera ona izan dela, noizbait aurre-iritziak jasan behar izan dituzten arren. RGI eta laguntza sozialen inguruan mintzatu ziren. "Gulan egitera etorri gara, eta lana dagoenean lan egiten dugu", adierazi zuten. Latinoamerikarretako batek nabarmendu zuen euren herrialdeetan gaizki zeudelako egin zutelako migratzearen haututa. "Espainiarrek ez zuten Amerika deskubritu. Amerika jada deskubritua zegoen, gu bertan bizi ginelako. Ez ziren lan bila etorri, on-

Jose Ignacio Ruiz de Olaguenaga soziologoari omenaldia egin zioten, migrazioen inguruan egin zituen ikerketen errekonozimendu gisa

dasunak lapurtzera eta bertakoak akatzera...". ezzuen esaldia bukatzerik izan, txalo zaparrada batek bete baitzuen aretoa.

Eskoziarrak, bere aldetik, kontatu zuen bere ingurukoek ez zutela etorkintzat hartzen, berak bere burua immigratetzat izan arren. "Askotan egokitu zait nire inguruko jendeak immigranteen inguruan gaizki esaka aritzea nire aurrean, eta oso deseroso sentitu naiz halakoetan", azpimarratu zuen.

José Ignacio Ruizi omenaldia

Jardunaldien laugarren eta azken egunean Jose Ignacio Ruiz de Olaguenaga izan zen protagonista. Iaz zendu⁽¹⁾ zen soziologo urduñarra, eta omenaldia egin zioten, migrazioen inguruan egin zituen ikerketengatik. Euskal Herriaren etorkizuna etorri berrien seme-alabek erabakiko zutela aldarrikatzen zuen berak. Etorkizun hurbil bati begira, baina, ikusteke dago ea eskualdeko beste herriren batean antzeko jardunaldiren bat antolatzen ote den.

BIDEOA: Migrazioari buruz ADRATANek egindako jardunaldien laburpena



Hiztegi lagungarria

Hilaren⁽¹⁾, hilabete honen / Gerturatzeko⁽²⁾, hurbiltzea / Zendu⁽³⁾, hil

BESTE EKIMEN BATZUK

HERRIETAKO KULTUR JAIALDIA



Laudioko Andaluzia, Extremadura, Galizia eta Gaztela-Leon Etxeek Herrietako Kultur Jaialdia ospatzen dute urtero, ekainean.

MUNDUKO JANAK



Urduñako Adi Emakume Elkarteak urteak daramatza ekimena antolatzen. Hitzorduak egiten dituzte, munduko hainbat txokotako jakiak prestatzeko. Amurrioko Aurreraka Emakume Elkarteak ere egin zuen ekimena, iaz.

HERRI BAT, HAMAIKA JATORRI Arrankudiaga-Zolloko eskola komunitateak 2013an antolatutako jaialdia.

LAUDION BIZI GARA 2013an sortutako ekimena. Hainbat jaialdi eta ekimen antolatu dituzte, herriko kultura ezberdinen arteko hartu-emana sustatzeko.

KULTUR ARTEKO ZUBIAK

Laudion sortutako elkarteak, hainbat jatorritako audioarren eskutik.



Eneko Gastaka

POLITOLOGOA

_Hankamotz

Pray for Siria, Palestina, Yemen...

Iragan ostiralean whatsappetik enteratu nintzen Parisen gertatutakoaz. Baita tresna berarekin eta facebook sarearekin haserretu ere. Inpotentziazko haserrea izan zen, kaleko trilerok nire ingurukoak engainatzen dituen bitartean ezer egin ezinik nagoela. Hildakoei merezi duten garrantzia kendu gabe, Parisekoak ez ziren izan "fundamentalista talde batek burututako hainbat eraso terrorista". Ezta gutxiago ere. Eta hau izan beharko litzateke hildakoen omenez egin beharko genukeen irakurketa sakona. ISIS ez da oraingo zerbait (errefuxiatuena ere ez, baina Afganistan edo Pakistanetik etorriak ez dira "errefuxiatu" kontsideratu), bere garaian talibanekin edota Bin Ladenekin ikusi genuen moduan; eta guk hurbilen izan dugun gatazkan ere erabili izan diren argudioak identifikatu daitezke: zoroen talde bat bezala deskribatzea, eraso irrazional eta basati modura erakustea, deshumanizatzea hain zuzen.

Ez dira ero irrazionalak. Ez da mendebaldeko gobernuen kontrolatik kanpo betidanik egon den zerbait. Ekialde Hurbila bezalako zonaldeetan bertako estatuek egiten dituzten erasoen eragina dira. Gure buruetan dagoen irudiarekin zerikusirik ez duen profila dute bertan jaiotako gazte ikasleek. Eta hortaz arrisku handiena orain politika inperialistekin eta xenofoboekin jarraitzea litzateke, hain zuzen ere eraso hauek sustatuko dituztenekin. Norbaitek zioen bezala, eskuak garbitzea baino, ez zikintzea hobe.

Konpromisoa

gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin



JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar, z/g • 01400 Laudio (Araba)

Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es



AZAROAK 25: EMAKUMEENGANAKO INDARKERIA
DESAGERTZEKO NAZIOARTEKO EGUNA

Isilpetik plaza publikora

Abuztuan agerraldiak egin zituzten Amurrio eta Laudioko zenbait emakumek bi herrietako jaien txupinazoetan, eraso sexisten aurka. Argazkian, Laudioko agerraldia. / aiaraldea.eus

Emakumeenganako indarkeria matxista salatzeke ekimenak ugaritu egingo dira datozen egunetan. Azken hamarkadetan pauso ugari eman dira eskualdean problematika hori etxeko pribatutasunetik kalera ateratzeko. Aldaketak eman dira legedian, zerbitzu publikoetan, formazioan, prebentzioan, herri mugimenduen jardueran... baina oraindik pauso gehiago eman behar direla aldarrikatzen dute emakumeen elkarteek.

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Urtero bezala, hainbat elkarretaratze egingo dira eskualdean azaroaren 25aren harira, indarkeria matxistaren desagertpenaren alde. Azken urteetan ohikoak bilakatu dira horrelako ekintzak eskualdean, Emakumeenganako Indarkeria Desagertzeko Nazioarteko Egunean zehar eraso edo hilketa bat gertatzen denean. Etxeko pribatutasunetik herrietako plazetara egin du salto problematikak. Salto handia izan dela diote eskualdeko emakumeen elkarte gehienek, baina oraindik pauso asko eman behar direla azpimarratu dute.

Lehen mobilizazioak

Lehenengo mobilizazioak Franco hil osteko urteetan eman ziren, hiriburuetan. Abortatzeko eskubidearen aldarrikapena pil-pilean zegoen. "Manifestazio ugari eginen ziren Bilboko Alde Zaharrean", oroitzen du Orozkoko Matxintxu emakume elkarteak Idoia Gregoriok. Garai hartako egoera gaur egungoarekiko "oso ezberdina" zela azaldu du Matxintxuko kideak, "diktadura bat igaroberriz, eta estatuak normalizatzen zituen indarkeria matxistaren kasuak".

Baina apurka-apurka hasi ziren eskualdean lehen emakume elkarteak sortzen. Emakume ugari bildu ziren talde horietan, eta esperientziak eta bizipenak komunean jarrita ondorioztatu zuten indarkeria kasuak ez zirela etxeko egoera isolatuak, ez zituela kasualitateak eragiten, fenomeno orokortu bat zela indarkeria matxistarena. "Arazo hori existitzen zelaz" kontzientziatu behar izan zi-

Indarkeria matxistaren aurkako lehen mobilizazioak Franco hil ostean eman ziren. Hiriburuetan lehenbizi, eta herrietan gero. Abortuaren eta adulterioaren legeen aurkako aldarriak ziren nagusi

ren lehenbizi, Menagaraioko Emakume Taldeko lehendakaria den Ana Ugarteren esanetan.

"Hasieran hiriburuetan eginen ziren mobilizazioetara joaten ginen", hasi da azaltzen Artziniégako Hiriska Emakume elkarteak Lehendakaria den Maite Iztuetak. Baina Artziniégan bertan elkarretaratzeak egiteari ekin zioten gero. "Garai hartan 'La mate porque era mía' lemaaren aurka eginen genuen, emakumeak inorenak ez ginelako aldarrikatuaz", oroitzen du garai hartan Laudioko Emakume Asanbladan zegoen Pili Elortegik. Institutuan sortu zen taldea, eta abortuaren edota adulterioaren legeen aurka ere aritu ziren (garai hartan emakumezkoen adulterioa zigortua zegoen, gizonetzkoena ez ordea).

Artziniéga bezalako herri txiki batean "laukatu" zirela adierazi du Maite Iztuetak. "Jende gutxi, eta gaizki ikusiak gainera". Mobilizazio horietara joate hutsagatik herritarren komentarioak entzun behar zituztela azpimarratu du Amurrioko Aurre-raka elkarteak Irene Novalesek. "Ez zen erraza manifestazioak antolatzea, are gutxiago herri txiki batean. Jendeak ez zintuen ulertzen". Laudion ere, antzera: Solastiar emakumeen elkarteak antolatutako lehen mobilizazioa elkarteak kideak baino ez zirengerturatu, Maria Jesus Aretxederak gogora ekarri duenez.

Urteak aurrera egin ahala, baina, handitu egin da elkarretaratze horietara doazen pertsonen kopurua, baina ez dute horregatik garrantzirik galdu, emakume elkarteetako ki-

Mobilizazioez gain, bestelako ekintza batzuk ere antolatu izan dituzte eskualdeko elkarteek indarkeria matxista prebenitzeko: hitzaldiak, autodefentsa tailerrak...

deen iritziak. "Hemengandela esateko balio dute mobilizazioek", Novalesen aburuz⁽¹⁾; arazo sozializatzeke, etxetik plazara ateratzeko, alegia⁽²⁾. Artziniégan ere garrantzi handia ematen diete elkarretaratzei, Espainiar estatuan hilketa matxista bat ematen den kasu bakoitzean ateratzen dira plazara. Mobilizazioen aldetik, aurten bi ekimen deigarri egon dira: Amurrio eta Laudioko jaien txupinazoetan eraso sexisten aurka eginikoak.

Barne mailako lanketa

Baina eskualdeko elkarteak ez dira mobilizazioak egitera mugatu, barne mailako lanketan jarri izan dute bereziki arreta⁽³⁾. Tailerrak, hitzaldiak... makina bat ekimen egin izan dituzte indarkeria matxistarekiko kontzientziatze eta prebentzioa garatzeko. Menagarain, adibidez, autodefentsarako tailerrekin eman diete lehen tasuna, etxeko arteko distantziak eta bide argituen gabeziak hala eskatzen zutelako, Ana Ugarterek adierazi duenez.

Erronka komun bat izan dute elkarteek: indarkeria matxista pairatzen ari ziren emakumei salaketa jartzearen pausoa ematen laguntzea. Erronka zaila. "Salaketa bat jartzea ez da ogia erostera joatea bezain erraza", azaldu du Ugarterek. Baiezta-pen horrekin bat egin du Idoia Gregoriok: "Oso ondo dago salaketa jartzea. Baina salatu ostean zer? Emakumea etxetik gabe, sostengu ekonomikorik gabe eta lagunik gabe geratu daiteke".

Zentzu horretan, emakumea lan-merkatuan sartzeak eragina izan du kasu gehiago azalazteratzean, menpe-



kotasun ekonomikoa ez delako garai batean bezain indartsua, Matxintxuko kideak azaldu duenez. Irene Novalesen ustez, duela zenbait urte "are zailagoa" zen salaketa bat jartzea. "Kasuak oso argiak izan arren, emakumeek ez zuten inondik inora senarren aurkako salaketarik jarri nahi. Eta salaketa asko zalantzan jarri egiten ziren gainera".

Pausoak emateke

2013ko maiatzaren 23a izan zen azken urteetako egunik beltzena Aiaraldean indarkeria matxistari dago-kionez, egun horretan izan baitzen eraila Amagoia Elezkano, bere bikotekideagatik. Indarkeria matxista ez da, baina, bikote harremanetara mugatzen. "Krisiekin ekonomikoak seme asko euren ama alargunekin bizitzera itzuli behar izatea ekarri du", adierazi du Avillo alargunen elkarteko lehendakaria den Maite Bilbaok, "eta testuinguru horretan eman izan dira baita amekiko indarkeria kasuak".

Hori guztiagatik, oraindik pauso asko emateke daudela ondorioztatu dute elkarrekin kideek. Indarkeria matxistarekiko jarrera "tinkoagoa" izan beharko litzatekeela uste du Idoia Gregoriok. "Ez da normala Madrilen iragan azaroaren 7an milaka pertsona mobilizatzea eta hurrengo bi egunetan hiru hilaketa gertatzea". Ana Ugarterentzat, berriz, "sinesgaitza" da "matxismoa eta feminismoa parekatzen dituzten diskurtsoak" oraindik ere tokia izatea. "Belaunaldi askoren lana falta da oraindik".

Pauso gehiago ematearen beharra aldarrikatu dute emakume elkarteek

"Arazoaren punta"

Amurrion sortu berri den Otsemeak emakume gazteen taldeko kideak ez daude ados aurrerapausoak ematen ari direnaren baieztapenarekin. "Zapalduak, erasotuak, erailak... izaten ari gara egunero". Hala ere, aipatu dute hori "arazoaren punta" baino ez dela. "Gure inguru hurbilenean ere ematen dira gizonek emakumearen gainetik mantentzeko mekanismoak". Komunikabide eta instituzioek, gainera, emakumea "subjektu pasibo" moduan aurkezten dute. Otsemeakeko kideen arabera. Hori dela eta, bidea "autodefentsa feminista" izan behar dela aldarrikatu dute, "emakumeek emakumeontzako eginikoa".

Hiztegi lagungarria

Aburuz⁽¹⁾, ustez / Alegia⁽²⁾, hainzuzen / Arreta⁽³⁾, atentzioa / Sinesgaitza⁽⁴⁾, sinesteko zaila

EGITARAU MOREA

ARTZINIEGA

AZAROAK 22
18:00 // **Antzerki-obra: Belinda**
Etnografia Museoa

AZAROAREN 25
12:00 // Hiriska emakumeen elkarteak gonbidatu egiten zaituzte indarkeria matxistaren ondorioz hil diren emakumeen oroimenez **euritako bat zabaltzea** eta **"Ni ere tratatu txarrak jasan dituen emakumea naiz" kanpaina** parte hartzera
Frontoia

18:00 // **Herritarren elkarretaratzea emakumeenganako indarkeriaren aurka**
Frontoia

AZAROAK 27
19:30 // **"Silencios" liburua irakurketa**, Etnografia Museoan, Elo Urrutikoetxea idazlearen eskutik

URDUÑA

AZAROAK 24
18:00 // **Antzerkia: "Ultreia"**
Alondegia

AZAROAK 25
18:30 // **Emakumeen kontrako indarkeria salatzen elkarretaratzea**
Udaletxe aurrean

AZAROAK 26
16:30 // **"Dependencia emocional" tailerra** (izena aurretik eman behar da liburutegian)
Liburutegia

AZAROAK 29
10:00-14:00 eta 16:00-20:00 // **Emagin elkartearen Autodefentsa ikastaroa**
Alondegia

OKONDO

AZAROAK 13, 20 ETA 27
17:30-19:30 // **Mindfulness tailerra** (izena aurretik eman behar da 945898023 telefonoaren bidez edo cayala.cultura@gmail.com helbidean)
Kultur Etxean

AIARA

AZAROAK 12 ETA 19
18:00 // **Mindfulness tailerra**
Gizarte Etxean

ABENDUAK 2
17:30 // **Hitzaldia: "Joko eta jostailu sexistak"**
Gizarte Etxean

OROZKO

AZAROAK 25
19:30 // **Elkarretaratzea**
Zubiaur plaza

AMURRIO

AZAROAREN 9TIK 30RA
Erakusketa: **"Eta berriro depilatzen ez banaiz?"**
Bañueta Kiroldegian

AZAROAK 18
Udal-instalakuntza guztietan
"Puntu Lila" jartzea eta banatzea

AZAROAK 21
20:00 // **Antzerkia: "Macho maris"**

AZAROAK 23
"Herriko harresia-Puntu Lila" jartzea
Udaletxean

AZAROAK 24
18:00 // **Hitzaldia: "Generoa musikan eta ikus-entzunezko egoizpenetan"**
La Casonan

AZAROAK 25
11:15 // **Elkarretaratzea**
Zaraobe Institutuan ondoren hezikidetzatailerak

17:00 // **Mural margoketa**
Enparantzan

18:30 // **Elkarretaratzea**
Udaletxeko Plazan

20:00 // **Elkarretaratzea**
Enparantzan

AZAROAK 26
17:30 // **Ipuin-kontalaria: "Munduko neskak"**
Haur liburutegian

20:00 // **Zineforuma: "Te doy mis ojos"**
Gaztetxean

AZAROAK 27
17:00 // **Sentsibilizazio tailerra (mistoa)**
Gaztetxean

21:30 // **Kontzertua: Amarauna**
Gaztetxean

AZAROAK 28
16:30 // **"Beldur Barik Jarrera 2015"**
Bañueta Kiroldegian

20:00 // "Beldur Barik Jarrera 2015" **lehiaketako sari banaketa**
Amurrio Antzokian

LAUDIO

AZAROAK 22
10:00-14:00 eta 15:30-19:30 // **Bigarren mailako autodefentsa tailerra** (izena emateko 944 034 850)
Kultur Etxean

AZAROAK 24
18:30 // **Hitzaldi-egtabaida: "Las otras caras de la prostitución"**
Kultur Etxean

AZAROAK 25
11:30 // **"Lanera ekintza"**
Abastos plazan

17:00 // **Zine-Foruma: "La cocinera del Presidente"**
LHUIn

19:30 // **Indarkeria matxistaren aurkako elkarretaratzea**
Herriko plazan

AZAROAK 27
19:00 // **Antzerkia: "Las Lysistratas"**
Lanbide Heziketa Udal Ikastetxean

AZAROAK 30
18:30 // **Tailerra: "Te quiero, pero no más que a mi vida"**
Herriko plazako autobus ibiltarian (izena emateko: 944 034 850)

Amurrion egingo da EAEko Beldur Barik topaketa

Azaroaren 28an egingo da EAEko Beldur Barik topaketa Amurrion. Indarkeria matxista ikus-entzunezkoen bidez azaleratzea da topaketa horien xedea.



Irailean egin zuten topaketen aurkezpena, Amurrioko ikasleekin / aiaraldea.eus

ERREDAKZIOA | Andrea Ulloa Telléz

Beldur barik programa Berdinsarea egitasmoaren⁽¹⁾ eskutik sortu zen, 2006an. Jendarteak dituen estereotipoak ezabatzea⁽²⁾ du helburu, "beldur barik" jarrera bultzatuz. Beldur Barik jarrerak "kultura matxista eta indarkeria sexistaren adierazpenak" aldatzeko konpromiso pertsonal zein kolektiboa adierazten du. Hainbat ekimen barnebiltzen ditu Beldur Barik programak, baina nagusia ikus-entzunezkoen lehiaketa da. Lehiaketa 12 eta 26 urteen arteko gazteei zuzenduta dago. Parte hartzaileek ikus-entzunezko produkzioen bidez islatu behar dute nola erantzun laketan desberdintasun egoera baten aurrean eta nola egingo lioketen aurre indarkeria sexistari "beldur barik" jarrera mantenduz.

Aurtengo topaketak, Amurrion

Lehiaketaren lehendabiziko edizioa 2010ean izan zen, 500 gazte baino gehiagok hartu zuten parte. Haien lanak Bilbon aurkeztu ziren, bertan ospatutako topaketan. Aurtengo edizioaren topaketa Aiaraldean izango da, Amurrion hain zuzen ere.

Hori dela eta, eskualde mailako lehiaketa bat ere jarri dute martxan. Lehiaketa Aiara, Amurrio, Artziniaga, Audio, Okondo, Orozko eta Urduñako 12 eta 26 urte arteko gazteei bideratua egon da. Bi kategoria desberdin planteatu dituzte: 12-17 urte bitartekoena eta 18-26 artekoena. Horrez gain, banaka zein taldeka parte hartzeko aukera eskaini dute.

Amurrioko Udalak modu positiboan baloratu du Beldur Barik lehiaketa eta ikastaro anitzak

antolatatu ditu Gazteleku, Ikastetxe eta aisialdielkarrekin Beldur Barik jarrera sustatzeko.

Topaketak azaroaren 28an egingo dira. Orduan egingo dute ikus-entzunezkoen lehiaketaren sari-banaketa ere.

Azaroaren 28an egingo da Euskal Autonomi Erkidegoko "Beldur barik" topaketa Amurrion. Lehiaketaren sari banaketa ere egun horretan izango da

Irailean aurkeztu ziren topaketak Amurrion, herriko ikastetxeetako ikasleekin eginiko tailer batzuen bitartez.

BIDEA: "Beldur barik" ekimenaren aurkezpena Amurrioko ikasleei



Hiztegi lagungarria

Egitasmoa⁽¹⁾, ekimena / Ezabatzea⁽²⁾, borratu

_kultura

Irakurketa errazeko klubak abian, Amurrion eta Laudion

Irakurketa errazeko bina klub jarri ditu martxan APDEMA Arabako buru-gaixoen elkarteak Aiaraldean, Laudion bata eta Amurrion bestea. Azaroan hasi dira irakurketa-saioak egiten.

ERREDAKZIOA |  | Txabi Alvarado Bañares

Asteartea da Amurrioko Kultur Etxean. Areto Nagusian daudenek bukatu berri dute irakurtzen ari diren liburuaren bigarren atala, eta horrekin batera amaitutzat eman dute Irakurketa Errazeko Klubaren aste honetako saioa. "Momentuz bi saio baino ez ditugu egin", adierazi du klubaren dinamizatzailea den Nekane Estrellak, "baina taldea oso gustura egon da, eta horrela jarraituko dugu".

APDEMAk (Aniztasun funtzionala dute pertsonen Arabako elkarte) sustatutako proiektua da kluba. Orain arte Gasteizen baino ez dute egin ekimena, baina aurtzen Aiaraldera zabaldu dute, Amurrio eta Laudion talde bana sortuz.

Kapitain ausartak da irakurtzen ari diren liburua. Abenturazko eleberri bat da, Rudyard Kipling-ek eginikoa. Esku artean duten bertsoia, baina, ez da idazle britainiarrik XIX. mendearen amaieran idatzitakoa, irakurketa errazera egokitutakoa⁽¹⁾ baizik. Zer ezberdintasun dago, baina, bien artean? "Irakurketa errazera egokitutako liburuak pertsona guztiei zuzentzen daude eta irakurtze-

Taldean irakurtzen dute liburua, elkarren artean txandakatuz. Ez dira irakurketa hutsera mugatzen, kluba esperientziak elkartrukatzeko gunea ere baita

ko zailtasunak dituztenentzat oso aberasgarriak dira; irakurtzeko eskubidea bermatzen die", azaldu du Estrellak liburuaren orriak eskuarrekin pasatzen dituen bitartean. Oso liburu bisuala da: ilustrazioak ditu, eta ohikoa baino letra handiagoa. Hitzbatzuk urdinez idatziak daude, orriaren beheko aldean hitzaren esanahia irakurri daitekeela adierazteko. Lerroak ere bereziak dira: ez dira orri amaieraraino iristen. Testua ozenki⁽²⁾ irakurtzean airea hartzeko egin beharreko geldiduneei markatzen dute lerroen amaiera. Irakurketa klubeko kideak pozik daude ekimenarekin. "Horrelako zerbait egiten dugun lehen aldia da, eta oso entretengarria iruditzen zait", adierazi du Kontxi Jauregik. Joxean Mendibil-ek ere bat egiten du baieztapen horrekin: "niretzako oso ondo dago, hitz egitea kostatzen zaidalako baina hemen elkarren artean pazientzia izanez egiten dugulako aurrera".

Irakurketa hutsetik harago

Ozen irakurtzen dute liburua, zirkuluan jarrita eta elkarren artean txandakatuz. Nekane Estrellak azal-

du ez dutela irakurketa erritmo bat ezartzen, ez eta saio guztietara joatea eskatzen ere. "Bakoitzaren erritmoa errespetatzen dugu, irakurtzen ondo pasatzea da helburu nagusia".

Baina ez dira irakurketa kolektibo hutsera mugatzen. Irakurtzen ari diren mintzatzeko tartea ere izaten dute. *Kapitain ausartak* bidaia liburu bat denez guk egindako bidaien inguruan mintzatu izan gara, adibidez. Irakurketak aurrera egin ahala esperientzia pertsonalak azaleratzen dira". Erritmoa kontrolatu ez arren, liburua urtearekin batera amaitzea aurreikusi dute. Horrela liburu berri bati helduko liokete 2016an. Saio batzuk batera egiteko asmoa ere badute Amurrioko eta Laudion taldeek, eta jende gehiago animatzen bada talde berri bat sortzeko aukera ere aztertzen ari dira.

BIDEOA: Amurrioko Irakurketa Errazeko Kluba



Inma Roiz IDAZLEA

_Kamerinoa

Gaixoak

*L*aster bukatuko den udazken alai eta bero honetan (otsoek ez baitute negua jaten, nagusienek dioten moduan), egunkarietako orrialdeetara salto egiten dihardute gaixo egoteari utzi egin ez dion gure jendarteko izugarrikeriek. Izugarrikeria. Zer beste izen eman ahal zaio genero indarkeriagatik hildako emakume kopuruari, salaketan bidez irtenbide bat bilatzen duten ehunka horiei eta bizitza ez den bizitza bat isilpean sufritzen diharduten beste milaka horiei, ordena ez den ordena bat ez nahastearren existentziarik okerrena isildu eta ezkutatzen duten horiek.

Ezin diot euregan pentsatzeari utzi. Emakumeengan batez ere, baina baita gizonezkoengan tratu txarren eta genero indarkeriaren biktima direnean ere, gutxiago diren arren. Ezin diot pentsatzeari utzi jendarte hau konponbiderik gabe gaixo dagoela, ezta zientziak gaixotasun horren aurkako erremediorik ez duela, horrenbeste zikinkeria eta zentzugabetasunerako bakuna bat.

Munduko istoriorik zaharrena dirudi, behin eta berriz errepikatuta, gizona gizon eta emakumea emakume direnetik. Egon zen garai bat zeinetan egoera okerragoa izan baitzen, baina egon ziren baita kultura eta jendarteak zeintzuetan ordenak buelta ematen baitzuen eta emakumezkoak ziren nagusi. Ez batak ez besteak ez naute kontent uzten. Hazi egin behar badugu, berdintasunetik egin dezagun, gure kontzientziei hots eginaz eta gaitz honekin bukatzeko inplikatu, bakoitza bere esparruan. Eraiki dugun jendarteaz ezer onik esaten ez duen gaitza, erremediorik gabe gaixotzen eta elbarri, anputatu eta tisiko uzten gaituena.



 **elkarlan**
asesores www.elkarlan.eu

Foru Kalea, 2 · AMURRIO
Tel. 945 39 33 51

Lamuza, 12 · LAUDIO
Tel. 94 672 74 28

Torre de Ugao, 12. UGAO
Tel. 94 603 91 65



Aseguru bat pertsona bakoitzarentzat

www.elkarseguro.com

_kultura

_kultur leihoa

Txetxu Urkijo
ZINEMA

The martian

Zuzendaria: Ridley Scott
Gidoilaria: Drew Goddard
Aktoreak: Matt Damon, Jessica Chastain, Kate Mara...
Herrialdea: AEB
Iraupena: 142 minutu



Bakardadea, aukeratua ez de-
nean, izugarria da berez. Bakarda-
deak, planeta oso bateko biztanle
bakarra izanez, irauteko inongo au-
kerarik ez duzula dakizunean, mila
aldiz izugarriago behar du izan. Ha-
lako egoera batean gizaki batek
sentitzen duena ikusleari helarazte-
a erronka ederra da zinemagile
batentzat, inolako zalantzarik gabe.
Bada, horixe duzue Ridley Scott zu-
zendari britainiarrak *The Martian*
(2015) honetan onartu duen desa-
fioa. Gainditu duen ala ez norberak
esan beharko du, nire ustez ez da
oso urruti geratu.


Planeta gorria aztertzeke helbu-
ru zuen misio bateko partaide bat
hildakotzat jotzen dute ikaragarriko
ekaitz batean desgertu ondoren.
Guztiz aurkako inguru batean irau-
teko modua aurkitu beharko du,
oraindik bizirik dagoela adierazteko.

Ridley Scott biziki maite duen ge-
nero batera itzuli da: zientzia-fik-
zioara, alegia. Bereak dira genero-
kogailurratzak hartuak izan diren bi
harribitxi: *Alien* (1979) eta *Blade Run-
ner* (1982). Lan honetan, hala ere,
benetako protagonista badago, ho-
rixe da Matt Damon, dudabarik. An-
tezele amerikarrak txapela kentze-
ko moduko antzezipena egiten du,
pelikula osoaren zamabere gainean
hartuta. Lan zinez zaila da hau: fisi-
koa izateaz gain, sentipen komple-
xuak ere azaleratu behar ditu eta.

**Filma datorren azaroaren 29an
proiektatuko da Amurrio Antzo-
kian, 19:30etan.**

ZINEMA:
**James Bond-i buruzko
liburu bat idazten parte
hartu du parte Lander
Arteaga urduñarrak**

*007 James Bond: de espía a ico-
no* liburuia idazten parte hartu du
komunikazioan aditua den Lander
Arteaga Eguiluz urduñarrak. Doc
Pastor da liburuaren egilea, baina
Arteaga arduratu da kapitulueta-
ko bat idazteaz, espioi ospetsua-
ren "gadget"-ei (tresnei) buruzko
atala, hain zuzen.



MUSIKA:
**Kalean da Atxurre
punk-rock taldearen
lehen diskoa, zazpi
abestirekin**

Atxurrek diskoa kaleratu du, tal-
dearen lehena. Areta eta Audio-
ko bost musikaririk osatutako punk
rock taldea da Atxurre. Euren kon-
posatutako sei kanta bildu dituz-
te diskoan, bertsiu batekin batera.
Drumgorri aretoan egingo dute
aurkezpen kontzertua, datorren
azaroaren 27an, 22:00etan.



MUSIKA
**Dozenaka musika
ekitaldi aste bakar
batean, Urduñan**

Azaroaren 20tik 29ra izango da Urduñako Musika Astea. Dozenaka kontzertu eta ekintza egongo dira aste horretan zehar hirian.



"Poteo musikatuak" egingo dituzte hiriko hainbat tabernetan. /aiaraldea

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Bihar (azaroak 20) hasiko da Ur-
duñako musika astea, eta hilaren⁽¹⁾
29ra arte luzatuko da. Aste bat,
eta dozenaka ekintza. 25 musika
ekitaldi baino gehiago egongo dira
hirian, Urduñako Udalararen, Santa
Zezilia bandaren eta Liborio kole-
ktiboaren eskutik.

"Poteo musikatuak" prestatu
dituzte Liborio kolektiboko kideek.
Musika talde ugari entzuteko au-
kera eskainiko dute, herriko hain-
bat tabernetan: JPK, Alain Concep-
ción, The Pushermen, Street Mes-
sengers, Soul Kitchen Moments,
Baxte, Music Box, La Mara y Gus,
Capitan Ahab, Peri Flay, The Coc-
kies, Carlos Velasco Duo, Durbin
Poveda eta Moonshine Wagon.

"Asmoa Urduña musikaz bus-
titzea eta herritarrengana gertu-
ratzea⁽²⁾ da, Urduñako poteoa be-
zalako eremu sozial batean", adie-
razi du Liborio kolektiboko kidea
eta Kultur zinegotzia den Eriz Pe-
rezek.

Larunbatean (azaroak 21), be-
rriz, rock kontzertuak egongo dira
Foru Plazan, Tatomán & Wikimen,

Etenik Ez, Versen eta Ramping tal-
deen eskutik.

Kontzertu bateratua

Santa Zezilia musika bandak,
bere aldetik, Urduñako musika
talde guztien kontzertu batera-
tua antolatu du, eta umeak pro-
tagonista izango dituen beste eki-
taldi berezi bat ere egingo dute.

Euskal musika tresnen kon-
zertu didaktikoa izango da uda-
laren ekarpen nagusia. Halaber,
karpa bat jarriko du Foru Plazan
ekitaldiak egiteko.

Zer entzun baino, zer ikusi egon-
go da udal-liburutegian, diskoen
azalen erakusketa egongo baita
aste osoan.

EGITARUA: Astean
egongo diren ekintza
guztiak



Hiztegi lagungarria

Hilaren⁽¹⁾, hilabete honen / Ger-
turtatzea⁽²⁾, hurbiltzea

**Kioskoetan da Aztarnaren
aldizkari berria**

ERREDAKZIOA | Txabi Alvarado Bañares

Aztarna elkarte etnografikoak
izen bereko aldizkariaren 46. zen-
bakia argitaratu berri du. Ohi denez,
eskualdeko historiari buruzko hain-
bat artikulu topatu ahal izango ditu
irakurleak argitalpenean.

Orozkoda nagusi portadan, Zu-
biaur Plazako antzinako irudi eta
planoen bilduma bat dakarrelako
aldizkariak. Bestelako gaiak ere jo-
rratzen dira, baina. Errepublikak ga-
raian euskal nazionalismoak Ur-
duñan bizitako egoerari buruzko
artikulu bat dago tartean, eta bai-
ta Amurrioko Aldaiturriaga auzoan
zegoen eta XIX. mendean eraitsi zen
Mendijurreko dorreari buruzko bes-
te bat ere. Dorreari buruzko testu



horiez da, baina, Amurriori buruz al-
dizkariak duen eduki bakarra. Herri-
ko industriaren bilakaera baitu hizpi-
de beste artikulu batek, Tubos Reu-



Edorta Moreno

HISTORILARIA

_Lurpetik

Alde zaharren alde

*Duela zenbait urte, Uhinak Irratiko Ojod'agila umorezko magazi-
nean, Laudion "asociación pro casco viejo" bat sortu behar zela hasi
ziren, txantxetan, aldarrikatzen. Orain Aldai Plaza dena ez zegoen
oraindik eraikia eta, bertan, aparkalekua zegoen, askok gogoratu-
ko dutenez. Ojod'agilakoek aparkalekua harriztatu behar zela zio-
ten, eta pare bat baserri-edo eraiki, merkatua egiteko toki pintores-
ko bat atondu...*

*Txantxak alde batera utzita, onartu beharra dago tamalgaria
dela herri honetan ondareari urtetan zehar izan diogun begirune
falta. Aranzadik han-hemenka jarritako panelei edo Kofradiak ba-
natutako liburu eta argazkiei begiradaxo labur bat ematea bai-
no ez daukagu: duela mende erdiko Audio gaur egungo Audio-
tik argi-urteetara dago. Eraikin batek zahar itxura duenean, urtika-
ria-edo sortzen digula dirudi, eta arrapaladan jotzen dugu beraz
orube dotore bihurtzera; Campoprecioso edo Montebonito higiezi-
nek zero askoko prezioetan etxebizitzak eraiki ditzaten, eta, askotan,
ezta hori ere. Horregatik, hain zuzen, dira horren txalogarriak onda-
rearen zaintzaren edo ezagutzaren alde sortatzen diren herri eki-
menak (sustraietatik herritarrek), instituzioei askotan belarririk tira
egiten dietenak atentzio eske eta atentzioa deituz. Euren nire zorionik
zintzoenak zuzendu nahi dizkiet. Eskerrak eman nahiko nizkieke ere,
egunkariak eskaintzen didan txoko labur zein preziatu hau baliatuz,
hilabeteotan Ermuko Andra Marin (also known as Santa Luzia) in-
duskatutakoa, bisita gidatuen bitartez, Audioko zein Audiokan-
poko jendarteari helarazten aritu direnei. Eskerrak asko gure herria-
ren ahaztutako historia partzelatxo hori plazaratzeagatik.*

kirola

KULTURISMOA

“Kulturismo txapelketa internazionalak espektakulu bat direla esango nuke”

ENDIKA MONTIEL (1989, Audio) “Olympia Amateur” kulturismo txapelketako garaile izan zen Pragan. Nutrizionista, *personal trainer*ra eta Max Power Store dendako gerentea da. Kulturismoko hainbat txapelketa internazionaletan aritu da denboraldi honetan.

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Lorpenik garrantzitsuenaurten “Olympia Amateur” irabazi izana izan da, ezta?

Zalantzarik gabe. Profesionalen munduan meritu gehien duen txapelketa da. Irabaztea izugarria izan zen, ez nuen espero. Lehenengo 10en artean geratu nahi nuen eta zorionez lehen postua lortu nuen. Aurretik egindako lan guztiak mezezi izan zuela pentsatu nuen garai- le izendatu ninduten ulean.

Horrez gain, zer gehiago lortu duzu urte honetan zehar?

Aurreko urteko irailean erabaki nuen Men’s Physique kategorian lehiatuko nintzela. Entrenamenduak hasi eta maiatzean ekin nion lehiatzeari.

Espainiako Kopan 15. postua lortu nuen eta etsipen handia izan zen niretzat. Txapelketa horretarako prestatzea oso gogorra izan zen eta emaitza ez zitzaidan batere gustatu. Beste emaitzak laburbilduz: Donostiako txapelketa nazionalan 2. postua, Open txapelketa nazional batean 5.a, eta ekainean, Malagan, hirugarren. Txapelketa horren ondoren, konturatu nintzen nire gorputzarekin maila internazionalan nazionalan baino aukera gehiago nituela. Horregatik, internazional mailan lehiatzea erabaki nuen.

Udaren ondoren, Madril 5. postua lortu nuen. Ondoren Pragako txapelketa- ra joan nintzen, eta azkena Liverpooletan izan zen.

Zer alde dago maila internazionalan edo nazionalan lehiatzearen artean?

Entrenamenduak batez ere. Izan ere, mundu internazionalan kirolariak jada profesionalak dira eta horien aurka lehiatzeko ez du balio eguneroko behin entrenatzeak. Askotan birritan⁽¹⁾ edo hiru bider entrenatu behar duzu.

Nolakoa da kulturismo txapelketa bat?

Internazionalan 30 edo 40 kirolarien aurka aritzen zara, 3000-4000 ikusle inguru daude, oso antolakuntza ona eta muntai oso handiak dira (futbol zelaietan...). Txapelketak espektakulu bat direla esango nuke.

Txapelketen egiturei dagokionez eszenatoki bat dago, eta han ibiltzen gara parte-hartzaileak desfilatzen eta posatzen. Gure azpian normalean 8 epailez osatutako epaimahaia dago eta haiek erabakitzen dute nork irabazten duen.

“Aurretik egindako lan guztia merezi izan zuela pentsatu nuen Olympia Amateur-en garaile izendatu ninduten momentuan”

“Prestakuntza osoaren %70 edo %80 egoki elikatzean datza; entrenamendu mota bat dela esango nuke”

narekin eta eguneroko entrenamenduekin 5 orduko loaldia dut.

Nola elikatu behar duzu kirol honetan jardun ahal izateko?

Elikadura entrenamendu mota bat dela esango nuke; izan ere, prestakuntza osoaren %70 edo %80 egoki elikatzean datza. Bi ordu zerbait jan behar duzu eta ohetik altxatzen zaren momentutik dena programatuta izan behar duzu momentu oro behar duzuna izan ahal izateko. Oso programatuta dut dena, zer jan, noiz jan, kantitateak pisatuta... Nire gorputzak momentu bakoitzean behar duena jan behar dut, ez gutxiago eta ez gehiago.

Zergatik hasi zinen?

Mundu honekin zerikusia duen negozio bat ireki nuen eta horregatik utzi nuen futbola. Nutrizioarekin zerikusia duen negozioa zen eta dena praktikan jartzea erabaki nuen. Nire gorputza apurka-apurka aldatuz zihoala ohartu⁽²⁾ nintzen eta azkenean mundu honetan guttiz sartu nintzen. Euskadiko txapelketara aurkeztu eta irabazi nuen eta orduan bi urteko prestaketa egitea erabaki nuen eta ondoren lehiatzen hasi. Eta hala izan da.

Hurrengo urteko denboraldian zer? Zer da egin nahiko zenukeena?

Aurtengo denboraldia nola egin dudana ikusita, hurrengo urtean AEBetan lehiatu nahiko nuke. Babesle gehiago lortu ditut eta horri esker gastu guztiei aurre egin ahal izango diet eta AEBetako txapelketetan lehiatu ahal izango dut.

Babesleak aipatu dituzu. Oso kirol garestia da, ala?

Bai, oso oso kirol garestia da. Elikadura soilik diru asko xahutzen⁽³⁾ duzu eta guzti horri txapelketetarako bidaiak, entrenamenduak... gehitu behar dizkiozu. Elikadura, adibidez, astero 100 euro gastatzen ditut. Bidaia bakoitzean, berriz, 1000-1200 euro gastatzen ditut. Kontuan hartu normalean 4 eguneko bidaiak direla eta dena ordaindu behar dudala, bidaia bera, hotela, elikadura...

Hiztegi lagungarria

Birritan⁽¹⁾, bi aldiz / Ohartu⁽²⁾, konturatu / Xahutu⁽³⁾, gastatu



KRONIKA



Lander Arteaga Eguiluz

la 300 kirolari judoan lehiatzen, Amurrión



Amurrioko lehiakide bakarrak, Nahikari Martínez de Lukok, ez zuen zortetik izan

Pasa den larunbatean, azaroak 14, Amurrión Hiribilduko XXII. Judo Torneoa -Espainiako Judoko Junior Super Kopa txapelketa- egin zen Bañueta kiroldegian, arrakasta handiarekin. Valentziarrak nagusitu ziren: urrezko 6 domina, zilarrezko 2 eta brontzezko domina bat irabazi zituzten.

Parte hartzen zuen Amurrioko judoka bakarrak, Nahikari Martínez de Lukok, ez zuen zortetik izan eta lehenengo lehiari ondo borrokatu ostean, gutxiagatik geratu zen kanpoan. Pena izan bazen ere, Nahikari lehenengo urtean junior mailan eta oraindik beste bi urte ditu aurre- ra egiteko.

Lehiaketan, leku askotatik heldutako ia 300 kirolarik parte hartu zuten: Euskal Herrikoak, Espainiar estatuko erkidego guztietatik etorritakoak, eta, urtero bezala, Frantziatik etorritakoak ere bai. Parisko atentatuak medio, azken horiek izan ziren protagonista. Ostiralean bidaiatu zuten, eta horregatik, hain zuzen, izan zuten parte hartzeko aukera. Amurrioko Judo Txapelketan minutu bateko isilunea egin zen atentatu biktimen alde, tatami erdian frantziarrak besarkaturik zeudela. Haien izenak eguneko txalo zaparrada handiena.

Junior SuperKopa arrakastatsua

Egunborobila antolatzea lortu zuen Amurrioko judo elkarteak, bai lehiakide kopuruaren aldetik baita antolakuntza bikainaren aldetik ere. Eta horrela aurrekusi du ere Espainiako Judo Federazioak: azken ebaluaketaren zain, momentuz, 2015ko Amurrioko Judo SuperKopa da junior mailan antolatutako txapelketarik arrakastatsua.

Hogeitabi urtez txapelketa bikain bat antolatu ostean, azken hiru urteetan Amurrioko judo elkarte-ko kide eta gurasoek aurrerapauso bat eman dute, Judoaren munduan Amurrión herria lehenengo mailara igoz. Zorionak euren lan bikainagatik.

_kirola

RALLYSPRINT

“Euskadiko txapelkunak izatea amets bat egi bihurtzea izan da”

AINGERU CASTRO eta ALAITZ URKIOLA Euskadiko Rallysprinteko txapelkunak dira bigarren aldiz. Guztira, 10 lasterketek osatu dute txapelketa.



Argazkia: Ander Zelaia. Urkiola eta Castro garaipen bat ospatzen

ERREDAKZIOA | Irati Moreno Fernandez

Bigarren irabazi duzue Euskadiko Rallysprinta. Zer nolako esperientzia izan da?

Aingeru: Oso esperientzia polita izan da. Nahiz eta nire bigarren aldiz izan, Alaitzen lehenengo izan da eta hori ere berezia da. Puntuazio aldetik, gainera oso txapelketa borrokatua izan da; txapelketa borrokatua eta gogorra.

Alaitz: Azkenean lehiatzen garen guztiok txapelkunak izan nahi dugu eta ilusio horrekin lehiatzen gara. Txapelkunak izatea niretzat amets bat egi bihurtzea izan da.

Guztira 10 lasterketa izan dira, eta horietako batean, San Miguelkoan, hain zuzen ere, erretiratu zineten. Zer gertatu zen?

Aingeru: Atera baino lehen kotxeak zerbait gaizki zuela nabaritu genuen. Baina hala eta guztiz ere, lasterketan parte hartzea erabaki genuen, galdu ahal genituen puntuak nahikotxo zirelako. Atera eta lehenengo zatian jada, kotxeak ez zuen aguantatu eta apurtu zen. San Miguelko proba horretan puntuatzeak, gainera, besteekiko alde handituko zuen, baina azkenean ezin izan genuen inolako alderik lortu.

Alaitz: Bai, gu bagenekien nahiz eta atera ziurrenik ezingo genuela lasterketa bukatu, baina berin-berdin atera ginen. Puntu horien bila joan ginen, nahiz eta alferrik izan zen dena.

Zein da 10 lasterketatik gehien gustatu zaizuen? Zergatik?

Alaitz: Niri zalantzarik gabe Hondarribikoa. Oso ibilbide eta zati polita du lasterketa horrek, eta gainera podiuma egin genuen.

Aingeru: Nik, ordea, nahiz eta Hondarribikoa gustatzen zaidan,

Azpeitikoak dut gustukoak. Orain dela bi urte lasterketa bertan behera utzi behar izan nuen eta geroztik bertan lehiatzeko gogoak nituen. Gainera, txikia nintzenetik kartekin ibili naiz han eta bertan garaipen bat lortu nahi nuen. Hori dela eta, aurtan Azpeitian lortutako garaipena niretzat izugarria izan da.

Emakumeen presentzia kirol honetan nahiko eskasa dela esan dezakegu. Alaitz, hor goian egoiteak zer sentiarazten dizu?

Alaitz: Harrotasun handia da niretzat kotxeen munduan ibiltzea eta gainera lehenengo postuetan aritzea. Neskentzat ez da baterre erraza mundu honetan sartzea. Niri txikitatik gustatu zaizkit kotxeak eta betidanik nahi izan dut kopilotua izan. Borrokatzea, besterik ez dago zure helburuak lortzeko.

Noizbait pentsatu duzu kopilotu izateko pilotu izatera salto egingo duzue?

Alaitz: Bai, hemendik gutxira probaren batean pilotu gisa aritzea espero dut.

Orain Euskadiko rallysprint txapelketa bukatu dela, zer egingo duzue? Zein da zuen hurrengo helburua?

Aingeru: Azaroko azken asteburuan Asturiasera goaz lasterketa batera eta ondoren hurrengo denboraldirako prestatuko gara. Martxoaren hasieran hasiko da denboraldiaurrea eta data horietarako dirua lortu behar dugu. Kotxeak konponketa dezente behar ditu; izan ere, aurtan, asko borrokatu behar izan dugu kotxe horrekin garaipena lortu ahal izateko.

PADELA

1540 sinadura padel pista eskatzeko



ERREDAKZIOA |

Orain dela 16 egun aurkeztu zuten Laudioko Udalean padel pista bat eraikitzeak eskaria. 10 egunetan 1540 sinadura bildu zituzten. Padel praktikatzen duten herritar batzuek aurrera eramandako proposamena izan zen. Padel gero eta gehiago praktikatzen dela uste dute, baina Arrigorriaga, Ugao edo Etxebarria jo behar dute.

ARKU TIROA

Podiuma Estela Carrasco eta Asier Fandiñorentzat

ERREDAKZIOA | Irati Moreno

Espainiako 3Dko baso ibilbidean arku tiro txapelketan, Estela Carrasco eta Asier Fandiño podiumera igotzea lortu zuten. Estelak 2. postua egin zuen eta Asierrek, aldiz, 3.ena. Biak Amurrioko Arku Taldeko kideak dira.

Madrilgo arkularien klubean egin zen txapelketa. Estela kade-te mailan aritzen da eta Asier, berriz, 14 urtetik beherako kategoria.

Castroren txapelketan 40 parte hartzaile egon ziren eta Fandiñorenean, ordea, 18. Biek hainbat lortu izan dituzte aurtan.

Amurrioko Arku Kirol Taldeko bes-



Fandiño eta Carrasco podiumean.

te hainbat kirolari ere 2015eko Liga Interautonomikoan dabilta.



JARRI EUSKARA SASOIAN: ASTINDU MIHIAK!

GOZATU EUSKARA!

info+ www.euskaraba.eus

TEKNIKARIEN GIDALIBURUA HELDUEN JARDUERA FISIKOETAN ETA KIROLETAN EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO

JARDUERA FISIKOAN ETA KIROLEAN HOBETZEKO TRESNA!

Kirol teknikari eta entrenatzaileen jarduerak hobetzeko tresna: euskararen erabilera indartzeko TEKNIKARIEN GIDALIBURUA:

Baliabideak:

- **Errutina linguistikoak:** Zer dira? Nola erabili? Zertarako?
- **Hizkuntza-irizpideak:** Zertarako? Nola erabili?
- **Baliabideak:** Hiztegiak, entrenamendu fitxak, webgune interesgarriak, materiala (DVDak, CDak, etab.)



_Herriko plaza

_agurrak Bidali zure zorion agurra egunkaria@aiaraldea.eus helbidera azaroaren 27a baino lehen



Arrate

Zorionak Arrate!!! Oso ondo pasa zure egunean eta irribarre horrekin segi beti!

Zure betiko lagunak



Arantza / Ibai

Zorionak Arantza eta Ibai! Oso ondo pasa zuen egunean eta jarraitubihurrikeriak egiten elkarrekin.

Familia



Auro

Zorionak Auro!! Familia- ren eta Barria kaleko zure lagunaren partez. Asko maitatu zaitugu denok!!

Familia eta lagunak



Pagaza

Zorionak Pagaza!!! Bidai oparoa izatea espero dugu! Besarkada bat LJt-ko adiskideen partez.

Lonjtras



Zuriñe

Zorionak Zuri!! Urtetik urtera ederrago zaude potxoli, musu handi bat koadrilako lagunaren partez.

Koadrilako lagunak



Markel/Maia/Presi

Zorionak titiss!! Koadrilako txikienak handitu zaizkigu!! Jarraitu beti bezain irribarretsu eta gogoratu juerga bat zor diguzuela!!

Koadrilako lagunak

_denborapasak

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									

EZKER-ESKUI

1. Merkataritza elkarrekin. 2. Arabako Errioxako herribateko. Osmioaren ikur kimikoa. 3. Sasikume, bastart. Artelana. 4. Zintzo. Ahoaren inguruko atal mamitsu. 5. Danimarkako. Potasioaren ikur kimikoa. 6. Ez estu, nasal. Eguzki. 7. Jardun. Benetan, egiak. 8. Kontsonantea. Odolez betea. 9. Trebetasun, abilezia.

GOITIK-BEHERA

1. Bilgor. Puska. 2. Aiaraldeko herribateko. Bokala. 4. Kitatzeke dago. Aireko, hegazkin. 4. Aterea. Musika nota. 5. Bizkaiko kostaldeko udalerrria. Tripa, sabel. 6. Gudarostea. Euskal sindikatua. 7. Lehenengoa. Ozeano Artikoko itsasoa. 8. Har ezazu! Erne! 9. Esateko moduko.

ERRAZA

	8		5			9			
3		9		7			5	4	
	4	5	2			6	8		
	7	1		5	8				
4		6							3
2		8			7		9	5	
				8	2				
				5		4			
1	6	7		9					

ZAILA

			8	6		2			
9					5			4	
		5	3	7				8	
	2	9		3					4
7		4		5	8			1	
					6				
5		6						3	9
8						3			7
3	4							6	

SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz-geizidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



_horoskopoa



TARTALO

01.20 - 02.18

Aizu! Erritmoa jaisteko unea heldu da! Une aproposa etxeko-lanen lekukoa besteei pasatzeko. Gauzak ez dituzu maite dituzulako egiten, bizitza aurrera eramateko egin behar den esfortzua ulertu behar dute, mesede hori egiezu.



HERENSUGE

03.21-04.20

Askotan gauzak gogoz kontra egiten dituzu? Ez ezazu besteen desiorako nahi ez duzuna egin, zuk nahi duzunean behar duzuna egin eta egingo duzula argi utzi. Zu zara zure burua errespetatu behar duen lehenengoa!



BASAJAUN

05.21 - 06.20

Aho zabalka zabiltzala? Ez iezaiozu lan kantitateari bota bakarrik errua. Zenbatetan gelditzen zara ordenagailuan berandurarte? Telesailak ez badira lanengatik izan ohi da, egitekoak azkenengo momentura arte usten dituzu!



GAUEKOAK

07.21 - 08.21

Hurrengo urtera arte festan aterako ez zarela diozu urterto, mozkor horiek askotan eragin dizkizuten lotsengatik. Hori ez da konponbidea, datorren jaietan gauza bera egingo baituzu. Egarrria zaintzea da egin behar duzuna.



AKERBELTZ

09.23 - 10.22

Ez dira bakarrik garai onak existitzen. Garai txarrak daude maiz eta beharrezkoak dira baita garai onak baloratzeko. Azkenengo bolada honetan sentitzen ari zarela gaitzitu orduko zorientasuna zein den argiago izango duzu.



ZIRIPOT

11.23 - 12.20

Ez al dizute esan zure irribarrea liluragarria dela? Samurtasuna islatzen duzu. Arma ona daukazu esku tartean, nahi duzuna lortu dezakezu umore eta alaitasun horrekin jarraituz gero.



GALTZAGORRIAK

02.19-03.20

Zure buruan baino ez duzu pentsatzen. Erabaki bat hartzen duzunean ezin dituzu besteak ahaztu, gainontzekoen mina ere ulertzen jakin behar da maite zaituenak zurekin sufritzen baitu. Ez itzazu besteak zure mundu eroan sartu!



LAMIA

04.21 - 05.20

Azken txanpa da oraingo, animo! Ekin bideari gogor, laster izango duzu borroka guzti horren saria eta. Eta nahiz eta espero ez zenuena izan bidetik egindako lan eta esfortzu guztia da izango duzun saririk handiena. Eutsi gogor!



BASANDERE

06.21 - 07.20

Erakartzen zaituen pertsona hori ez dakizula nor den? Hori da esaten duzuna zure burua konbentzitzeko. Uste baino gehiago dakizu eta zuk bakarrik daukazu galdera horren erantzuna. Nork eragiten dizu barre polit hori? Orain bai, ezta? Aurrera orduan!



JENTILAK

08.22 - 09.22

Maitasuna polita izan behar du beti. Erraldoi bihurtu behar zaituen sentimendu bat da, zure burua eta gorputza gehiago maitatzen lagundu behar dizu. Hori eragiten ez duenean kale egin behar zaio, kaltegarria dena zure bizitzatik kanporatu lehenbailehen!



MARI

10.23 - 11.22

Maite dugun norbait doanean sentitzen dena ezin daiteke deskribatu. Maite ditugunak joaten direnean eragiten digutena gure bizitzan izan duten garrantzia erakusten du. Polita da pertsona horrek inguruan izandako indarrarengatik beti izango dugun oroipena.



SUGAAR

12.20 - 01.19

Aspertzeraoan ikusten duzun soluzio bakarra erosketak egitea al da? Askok nahiko lukete zuk daukazuna hobeto bizi ahal izateko. Esnatu! Orain daukazun guztia galdu dezakezu, aurrezten ikasi!



_irakurlearen txokoa

_agenda

11.19 OSTEGUNA

16:00 AMURRIO
IKASTAROA
Internet: ezagutzen zenuena historia da Refor

16:30 LAUDIO
ODOL EMATEA
Ardantzazar

17:00 URDUÑA
IPUIN KONTALARIA
Elefante txikia
Liburutegia

11.20 OSTIRALA

17:30 OKONDO
TAILERRA
Mindfulness
Kultura Etxea

17:30 LAUDIO
BILERA IREKIA
Lamuzako murala diseinatzeko
Lamuza Ikastetxea

18:00 LAUDIO
MAHAI-INGURUA
Sozialismoari buruz
Gure Aukera

18:00 ARTZINIEGA
AISIALDIA
Klown tailerra 18 urte gorako gazteentzat
Liburutegia

19:00 OROZKO
ASTE MIKOLOGIKOA
Pintxo lehiaketa
Arrugaeta, Itxina, Otegi, Zubiaur Tabernak

19:00 AMURRIO
MAHAI-INGURUA
Errefuxiatuen inguruan
Kultur Etxea

19:30 OKONDO
AUZO BATZARRA
EH Bilduk deituta
Eskola

20:30 ARRANKUDIAGA
AFARIA
Laguntzaileentzat
Gizarte Etxea

21:00 AMURRIO
OSTIRAL GORRIAK
Antzezlaria
Gaztetxea

21:00 OROZKO
BERTSO SAIOA
Ametz Arzallus eta Jon Maia
Eskola (25 euro)

11.21 LARUNBATA

11:00 LAUDIO
ATSO EGUNA
Tailerrak, musika, pegatina trukea, bazkaria...
Zubiko etxea

12:00 ARTZINIEGA
OHITURA
Txerriboda
Etnografia Museoa

14:00 ZOLLO
JAIK
Bazkaria eta trikitilariak
Herrira

16:00 LAUDIO
TAILERRA
Barreterapia
familiarientzat
Lamuza Ikastetxea

17:30 LAUDIO
SORGIN ZAPATUAK
Euri-makil musikatua egiteko tailerra eta askaria
Gardeako Gizarte Etxea

18:00 ARTZINIEGA
ARABA KANTAN
Ortzadar-loar abesbatza
Etnografia Museoa

19:30 OROZKO
ASTE MIKOLOGIKOA
Urtzi Veraren argazkiak eta ziza dastatzea
Arbaitzako Txokoa

19:30 AMURRIO
HITZALDIA
Free Base: sokarik gabeko eskalada paraxutarekin
Katekesi Aretoa

20:00 LAUDIO
ANTIFAXISTA EGUNA
Liburu aurkezpena eta kontzertua
Orbeko Etxea

20:00 URDUÑA
Poteo musikala eta rock kontzertuak
Herriko tabernetan eta Foru Plaza

22:00 LAUDIO
BAKARRIZKETA
Dani Lagi eta DJ Ruba
Sorgin taberna

11.22 IGANDEA

08:00 LAUDIO
OXIGENOA EUSKARARI
Mendaur-Arantzara
Institutua

09:00 LENDOÑOBEITI
KULTUR IBILALDIA
Salvador Velillak gidaturik
Dorretxea

10:00 OROZKO
BISITA GIDATUA
Izan zen basoa. Juanjo Hildagoren eskutik
Orozko Museoa

MIKOLOGIA ASTEA



11.22 IGANDEA
Zubiaur plaza eta Museoa

11:30 Marrazki lehiaketa
12:30 Urtzi Veraren argazkiak eta solasaldia
14:00 Sari banaketa

12:00 MADARIA
SANTA ZEZILIA JAIA
Erdigunea

12:00 ARRANKUDIAGA
MIKOLOGIA
Euskal Preso Politikoen aldeko pintxoak
Gizarte Etxea

16:30 TERTANGA
UMEENTZAKO EKINTZA
Euskararen jolas parkea
Eskola zaharra

17:00 MENOIO
IGANDE ARRATSALDEAK
FAMILIAN
Ipuin kontalaria, askaria eta eskulanak
Kontzeju Etxea

18:00 ARTZINIEGA
ANTZERKIA
Belinda
Etnografia Museoa

19:00 LAUDIO
25. URTEURRENA
Andere abesbatzaren kontzertua
San Pedro Eliza

11.23 ASTELEHENA

19:00 URDUÑA
BILERA
Txakurren afera lantzeko
Alondegia

10.24 ASTEARTEA

17:30 LAUDIO
YOGA SAIOA
Familiarientzat
Satya Yoga Eskola

10.25 ASTEAZKENA

MOBILIZAZIOAK



11.25 ASTEAZKENA
EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Eskualdeko hainbat herritan egingo diren elkarretaratze eta ekintza guztiak erreportajearen topatuko dituzue (8-9 or.)

ZINEMA

11.20 OSTIRALA

"MISS DAISSYREN

GIDARIA" BASALARRINA
19:00etan doan

11.21 LARUNBATA

"AMAMA" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA
IKASTETXEA 17:30etan eta 20:00etan (3 €)

11.22 IGANDEA

"CAMPANILLA Y LA LEYENDA DE LA BESTIA" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 16:30etan (3 €)

"PINOCHO Y SU AMIGA COCO" AMURRIO ANTZOKIA 17:30etan (3,60 €)

"MARTE" OROZKOKO DONIBANE ARETOA 19:00etan (4 €)

"EL DESCONOCIDO" AMURRIO ANTZOKIA 19:30etan (4,80 €)

11.23 ASTELEHENA

"EL DESCONOCIDO" AMURRIO ANTZOKIA 20:00etan (3,60 €)

11.25 ASTEAZKENA

"LA COCINERA DEL PRESIDENTE" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA
IKASTETXEA 17:00etan

11.26 OSTEGUNA

"LOREAK" OKONDO ESKOLA 18:00etan doan

"TE DOY MIS OJOS" AMURRIOKO GAZTETXEA 20:00etan doan

11.28 LARUNBATA

"TRUMAN" LAUDIOKO LANBIDE HEZIKETA
IKASTETXEA 17:30etan eta 20:00etan (3 €)

Jimmy jazz

gasteiz



AZA 19 // **NIKKI HILL**
VYNILAND TOUR
FESTIVAL

21:30 (15 € + gastuak / 18 €)



AZA 20 // **SIDONIE**
'Biraren amaiera'

21:30 (12 € + gastuak)



AZA 21 // **RAYDEN**

21:00 (11 € + gastuak / 14 €)



AZA 26 // **JOSH ROUSE**

21:00 (15 € + gastuak / 18 €)



AZA 27 // **VENDETTA**
'Biraren amaiera'

21:00 (12 € + gastuak / 15 €)

Andre Maria Zuriaren Koroatzea Kalea, 4
01012 Vitoria-Gasteiz
www.jimmyjazzgasteiz.com/eu

etxaurre

higiezin agentzia

PISUA SALGAI OKONDO
Prezioa: 125.000 €
51 m², 2 gela, bainugela, sukalde eraberritua, egongela, trastelekua, egoera ona, altzairuz ornituta.
Erref.: 167.666



PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 155.000 €
68 m², 3 gela, bainugela, sukalde, egongela balkoiarekin, kanpoaldera, trastelekua.
Erref.: 167.673

PISUA SALGAI ORDUÑAN
Prezioa: kontsultatzeke
90 m², 3 gela, 2 bainugela, sukalde, egongela balkoiarekin, trastelekua, igogailua, garajea, altzairuz ornituta, bistak ikaragarriak.
Erref.: 167.671

PISUA SALGAI LAUDION
Prezioa: 85.000 €
50 m², 2 gela, bainugela, sukalde amerikana, egongela, kanpoaldera, eraberrituta, bistak mendira.
Erref.: 167.672

LOKALA ESKUALDATZEN DA LAUDION
Prezioa: 12.000 €--550 €
70 m², lokal komertziala, garbategia, erakusmahai, erakusleihoa, lan tokia, makineria osoa, bezero finakoak.
Erref.: 167.660



ETXEA SALGAI LAUDION
Prezioa: kontsultatzeke
110 m², 3 solairu, 3 gela, bainugela, sukalde, despentsa, egongela, terraza, txoko, garajea, 400 m²-ko lorategia.
Erref.: 162.670

PISUA SALGAI LUIAONDON
Prezioa: kontsultatzeke
95 m², 3 gela, 2 bainugela, sukalde, egongela jantokiarekin, balkoia, trastelekua, igogailua, garajea, altzairuz ornituta.
Erref.: 167.667

www.etxaurre.com
946 72 85 50
Zumalakarregi, 38 Audio

_ezin galdu



AMETS ARZALLUS ETA JON MAIA: Puntako bertsolariak ekarriko ditu bihar Berbaz kultur elkarteak. Hitzordua Orozkoko Eskolan izango da 21:00etan eta 25 euro balioko du bertso-afarian parte hartzeak. Induman daude sarrerak salgai.



MENDIA ETA NATURARI BURUZKO JARDUNALDIAK: Mendiko Lagunak taldeak kirola eta natura uztartzen dituzten jardunaldiak antolatu ditu. Azaroaren 21ean Free Base, sokarik gabe eta paraxuta erabiliz egiten den eskaladaren inguruan mintzatzeko da David Fuste.

Laudioko Jaien datak aldatuko zenituzte?



Iñaki Garcia

“Nire kalabaza lanparak munduan bakarrak dira, eta pertsonalizatuak gainera”

IÑAKI GARCIAK (1989, Amurrio) kalabazekin forma askotako lanparak egiteari ekin zion, Istanbulera eginiko bidaia baten ondorioz. Berak landatu, artisau-eran marraztu, egokitu eta saltzen ditu.

ERREDAKZIOA | Izar Mendiguren Cosgaya

Kalabazekin lanparak egiten dituzu. Bizitzan hainbeste kalabaza jaso dituzu ala?

laz 15 bat. Urte osoan zehar lanparak egiten ibili naiz, bakarra falta zait. Aurten 50-60 kuia jaso ditut! Aurten forma askotakoak landatu ditut: suge itxurakoak, malkoenak, bitxiak... Kalabazek mundua oso handia da.

Kalabazekin lanparak egiteko argia izan behar al da?

Ez, denbora eta dirua behar dira.



Edonork egin lezake gogoia izanez gero, baina materiala erosteko (erremintak) eta baratza zaintzeko denbora behar da. Horrez gain, abila izan behar zara dremel erremintarekin; pultsua eta indarra neurtu behar dira. Akats txiki batek kuia apurtuz gero pikutara bidaltzen dizu egindako lana.

Nola bururatu zitzaizun barazkiei artistikoki erabilera bat ematea?

Istanbulen egin nuen bidaia batean denda batean ikusi nituen kuiekin egindako lanparak. Momentuan maitemindu eta galdezka hasi nintzen beharrezko informazioa topatu nuen arte.

Haziak topatzea asko kostatu zitzaidan, interneten eta Amurrioren bila ibili nintzen, hemengo denda batean aurkitu nituen arte. Baratzetik ez dudanez Urduñako lagun bati lur zati bat okupatu nion. Ea Amurrioren ortu publikoa ematen didaten!

Nola bilakatzen da kuia bat lanpara?

Baratzetik kuia hartzean etxean 2-4 hilabete lehortzen uzten ditut. Bien bitartean marrazkiei bueltak ematen dizkiet interneteko eta nire buruko ideiekin. Zirriborroa zehaztean kalabazan arkatx eta permanentearekin marrazten dut. Horretarako, ordea, lehenabizi hustu egiten

dit, eta gero azala dremel erremintarekin landu.

Hurrengo pausoa lanpararen oinarria egitea da, tutuekin base ezberdinak eraikiz. Behin hori eginda elektrizitate lanetan sartzen naiz: bonbilla jarri, kableak sartu eta etengailu zein entxufe gehituz. Kalabaza bakoitzaren atzean 20 ordu edo gehiagoko lana dago.

Saldu ere egiten dituzu, ezta?

Bai, interneten eta azoketan. Interneten webgunea daukat: kuialamparas.es. Facebook orria ere badut proiektua zabaltzeko. Bertan egiten dudaren azalpena, baratzeko argazkiak eta lanparak ditut. Prezioei dagokienez bakoitzak 100€ inguru balio du. Jendeak 30 euro balio dituela uste du, baina horrekin ez da ezta bonbilla edo erabiltzen dudana materiala ordaintzera iristen. Ikea-koak 20€ balio ditu, baina erabat industrialki egina dago. Nireak munduan bakarrak dira, eta pertsonalizatuak gainera.



Lucia Menoyo KAZETARIA

_Leihotik

Kolesterolaren bidea

Kolesterola gutxienekoa da. Kontua da bizikletak hartu, haurrak atzeko aulkitxoetan sartu eta, bakoitza bere kaskoarekin, familia zorionsua garela sentitzea, ibai-ko ahate familia bezain harmoniatsua.

Bidea binaka egitekotan ere, aspaldiko lagun edo bikotearekin berriro bat zarela nabarrituko duzu; pauso arin sinkronizatuari esker bihotza eta berriketa biziagotzen dira.

Baina kolesterolaren bideak duen indar mistiko eta sendagarria bete-bete sentitzeko, bakarka egin beharko duzu.

Kasu honetan atrezzo apur bat gomendatzen da: kaskoak belarrietan, ogia eskuan... Zure pauso alaiaren eroso sentitu eta begiak Zeramikaren tximinian iltzatu. Topatzen dituzun ezezagun guztiak agurtu, akitutako runner pare batez errukitu.

Zubi gorriak zeharkatu ahal, izandako aste kaskarra nola desagertzen den sumatuko duzu. Lipidoak gorabehera, bizitzarekin adiskidetu zara.